



# Pil-pilean

TRUKINGA

Soraluzeko hilaetekaria  
2022ko uztailea · 388 alea

## BUELTAN DIRA JAIK ZAPORE TROIKALAREKIN





# PIL-PILEAN 388

2022ko uztaila

Azaleko argazkiaren egilea:  
Fernan Oregi.

## Aurkibidea

- 4 **Begira** Jaietako egitarauen bilduma
- 6 **Kanoikada eta eraso sexisten kontrako kanpaina**
- 7 **Zezena**
- 8 **Gastronomia**
- 10 **Txosnak**
- 12 **Umeendako eskaintza**
- 18 **Erreportajea** Jaiak lan egingo dutenen begiradatik
- 23 **Herri kirolak, pilota jaialdia eta futbito txapelketa**
- 25 **Caribe Mix**
- 26 **Konpartsa, dantza saioa...**
- 27 **Polo Opuesto**
- 28 **Gune Musik**
- 29 **Tio Teron**
- 30 **Zerbitzuak** Zorion-agurrak, oroitzak, iragarki laburrak...

IRITZIA

- 3 **Neuretik** Axlor Elortza *Oporrak*
- 16 **Gutunak** Karakate Bizirik, Marian Begil eta Nikanor Iñurrieta
- 16 **Komiki tira**
- 17 **Puntua** Alberto Iñurrieta *Entzuteari lehentasuna eman*



**Pil-pilean herri komunikabidea**

**TOKIKOM**

**Argitaratzailea**  
Pil-pilean Euskaltzaleen Topagunea  
Errabal kalea 15-1, PK 27  
20590 Soraluze

**Erredakzioa**  
Ubane Madera  
ubane@pilpilean.eus  
Egoitz Unamuno  
egoitz@pilpilean.eus  
605 706 086

**Publizitatea**  
publizitatea@pilpilean.eus

**Zuzentzailea**  
Miren Gallastegi

**Diseinua**  
Goiena  
Oier Larreategi (moldaketak)

**Maketazioa**  
Oier Larreategi

**Inprimategia:**  
Gertu Koop.

**Banaketa:**  
Pil-pilean Ekoizpena

**Lege Gordailua:**  
SS-537-2000

**Tirada:** 2.100 ale

**Babesleak**



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA**

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak  
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



**SORALUZEKO  
UDALA**



# Oporrak



AXLOR ELORTZA

**P**enaz entzun nuen beste behin "bota dugu astea". Badirudi egutegiko egunak borratzen gabiltzala, beti hurrengo oporrak noiz iritsiko zain. Zeinen ondo adierazten zuen Oierrek zentzurik gabeko bizitza hori ekaineko iritziari.

Orain dela ez askora arte baserriko bizitzan oporrak naturak inposatzen zituen eguraldi txarraren bitartez. Tailer-lanetan igandeez gain, argindarra joanez gero ere opor egun gehiago izaten zuten. Opor gutxi eta, gainera, kanpo faktoreen menpe. Nahiz eta gaur egun zentzu horretan aurrera egin izana ezin ukatu, oreka osasuntsu batera iristeko asko gelditzen zaigunaren susmoa daukat.

Baina zer demontre, susmoa bakarrik ez. Oporren kontzeptua arlo guztietara zabaltzea behar beharrezkoa dugunaren ziurtasun osoa daukat. Adibidez, burua ideiekin bueltaka dugunean, gelditu eta distantzia hartu behar izaten dugu dena garbiago ulertzeko. Gure gorputzek ere oporrak behar dituzte ondo funtzionatzeko. Hala nola, gauero gure loa ezinbestekoa da. Jan ondorengo baraua ere oso garrantzitsua da elikagaiak aprobetxatzeko. Eta bizi urbanotatik naturarako ihesaldiak ere opor onenak omen dira gure sistema immuneentzat.

Eta bai, apustu egingo nuke lana eta oporren arteko balantza alde okerrera erorita dagoela. Nahiz eta gure beharrek ez duten egutegiez ulertzen, oporrak beti sasoi berean datoz. Eta horrela zailagoa da oporrak oreka pertsonalari erantzuteko bideratzea.

Momentuz, eta aldaketa drastikorik egin ezean, eguneroko inertziatik irten eta norbere buruarekin konektatzeko esfortzua egin beharko dugu. Horretarako, **edozein momentu kontzienteki bizi eta gozatzerantz animatzen zaituztet, minutu batzuk besterik eskatzen ez duten eta norberaren esku dauden opor-pilulez disfrutatzerantz.** Abenturazko nobeletan murgiltzera, umeen algarez kutsatzerantz, gustuko abestiekin dantzatzerantz, eguzkitan lasai asko ezer egin gabe esertzerantz, mendi aldera joatera edota jatordu bereziak egun arruntetan egitera. Betiere, eta hau da trukoa, burua egiten ari garen horretan mantenduta. Opor zein lanegun, horrela egiten asmatuko bagenu ez ginateteke egutegitik egunak botatzen arituko. Opor zein lanegun, ondo pasatu dezagun!

**INERTZIATIK IRTEN ETA  
NORBERE BURUAREKIN  
KONEKTATZEKO  
ESFORTZUA EGIN  
BEHARKO DUGU**

# Jai-egitarauen bilduma


IRUDIAK: SORAPEDIA.EUS

TESTUA: EGOITZ UNAMUNO

Dantzariak, zezenak, txistulariak, erraldoiak, santuaren argazkia, herriko argazkiak, marraskiloak... Askotariko sinboloak erabili izan dira Soralezeko jaien egitarauak ilustratzeko. Horixe ageri da Sorapediak bere webgunean ikusgai jarri duen bilduma zabalean. Izan ere, Sorapediak 1931tik hasi eta gaur egunera bitarteko 78 jai egitarau jaso ditu webgunean, bere azal eta mami. 1977ra arte herriko jai nagusi izan ziren Andramari jaietako egitarauetz gain, Santiago-Santa Ana jaietakoak eta herriko mendi auzoetako jaiak ere ageri dira: San Andres, Txurruka, Irure, Ezozki eta San Martzialgoak. Harribitxi asko ere bai, esaterako, 1931ko jaietako ekitaldiak: aureskuak (garai hartan soka-dantzak zirenak), paitta harrapaketak eta igerilari karrerak ibaian, "eresi-jostaldi atsegingarria"-k... Bilduma horretan dago azken mendeko herriko jaien historia xehea, altxor ederra, edozeinek kontsultatzeko moduan, 'zoro' kuadrilla baten lanari esker.







# Zaintzaileak eta medikuak pregoilari

Pandemiaren ondorengo lehen jaietan, kanoikadak iragarriko du Santiago-Santa Ana jaien hasiera, uztailearen 22an, barikua

Asteburu hasiera tarteko, bestetan baino goizago hasiko dira aurten jaiak, uztailearen 22an, barikuarekin. "Pila bat kosta zaigu ekitaldiak partitzea barikutik martitzenera arte. Baina egutegiak markatzen ditu jaiak eta jendeak daukan jai-gosearekin, zapatuan beharrean barikuan hasiko dira", esplikatu du Abel Olaizola Kultura zinegotziak eta Jai Batzordeko kideak.

## Kanoikada

Aurten, hirugarrenez, kanoikadak iragarriko du jaien hasiera, 20:00etan. "Fugasek eta Pibek lagako dute kanoia prest. Kanoi-salba jaurtitzeaz, berriz, zabalatarak arduratuko dira. Aurten, proposatu diegu gizon bat eta emakume bat izatea kanoikada botako dutenak,



Orain bi urteko kanoikada.

baina duten jantzien eta disponibilitatearen arabera egingo dute", esplikatu du Olaizolak. Pregoa botatzea berriz, ambulatorioko medikuei eta erizainei eta Mesedeetako egoitzako langileei eskaini diegu. Arrazoa oso sinplea da:

pandemian egindako lanarengatik eta, gu astakilo moduan portatu arren, hor egon direlako", esplikatu du.

## "Denon gustukoak"

Prestaketen inguruan galdetuta, berriz, Olaizolak dio aurten, "sekula baino lehen" hasi direla antolatzen eta bukatu dutela "sekula baino beranduago". Esan duenez, pandemiaren ondorioz, ekitaldiak prestatzen dituzten enpresetako batzuk desagertu egin dira eta jarraitzen dutenak topera daude. Ekitaldiei dagokienez, "adin eta gustu guztiak kontuan hartuta" prestatu dituzte: "Ahalegindu gara denon gustukoak eta errespetuzkoak izaten. Nahi duguna da ekitaldiak bata bestearen osagarri izatea eta batak ez solapatzea bestea. Dena den, esan beharra dago urtero eskaintzen zaiela herritarrei Jai Batzordera etortzeko aukera, jaietan zer ekarri nahi duten aukeratzeko, baina aurten ere hiru taldetatik bakarrik etorri dira ordezkariak: Gune Musik, Pil-pilean eta Galtzagorriak".

## Babesgunea, zapiak, gidak eta beste, eraso sexisten kontrako kanpainan

Soraluzeko Udalak *Eraso sexistarik gabeko jaien alde* izenburua duen kanpaina bultzatu du aurtengo jaietara, udal ordezkariak duten alderdi guztien babesarekin. Kanpainaren helburua da "herritarrek kontzientziaztea, berdintasunean oinarritutako jaiak sustatzea eta kaleak, jaietan eta urte osoan,

guztionak direla dioen mezua helaraztea".

### Erasoei aurre egiteko protokoloa

Hainbat osagai izango ditu kanpainak. Adibidez, eraso matxistei zein LGTBIfobikoei aurre egiteko protokoloa banatuko dute tabernetan eta txosnetan. Horrez aparte, SexuBizi izeneko babesgunea

jarriko dute jaietako zapatuan 23:00etatik 02:00ak arte, Gaztetxe ondoan, aholkularitza, laguntza... emateko. Bestalde, gazteei zuzendutako gida banatuko dute, *Eraso sexistarik gabeko egun eta gauak* izenburuarekin eta, bestek beste, indarkeria sexistaren kontrako eta askatasunaren aldeko mezudun banderolak jarriko dituzte faroletan. Zapiak ere aterako dituzte, honako leloarekin: *Soraluzeko Jaixetan Aske Gozatu*.





Soraluzen izango diren zezenak Mutrikun, Arno ganadutegiaren zelaietan.

# Bueltan dira zezenak

Bi urteko etenaldiaren ondoren, atzera ere, zezenak izango dira Santa Ana eguneko protagonista nagusietako batzuk. Aurten, umeendako zezentxoak eta poniak ere izango dira, eguraldiaren baimenarekin

Mutrikuko Arno ganadutegiko zezenak, zezentxoak eta poniak gertu daude Soraluzerako. Santa Ana egunean hiru hitzordu dituzte. 07:30ean soltatuko dituzte lehen zezenak erdiguneko kaleetan. "Goizean, 6-7 bat eramango ditugu, txandakatzeko, bestela hanketatik-eta sufritu egiten dute", azaldu du Agustin Mugertza Arno ganadutegiko ugazabak. Hark gaineratu duenez, zezen biziak izango dira: "Pixka bat mugituak gustatzen zaizkio jendeari, bestela aspertu egiten dira; beraz, halakoxeak. Gainera deskantsatuta daude aspaldian. Pandemia kontu honekin gelditi egon dira bi udatan, eta,

oraindik ere, leku gutxitan ibili dira, denboraldi hasiera delako".

Goizean, 07:30etik 09:00ak arte ibiliko dira zezenak Plaza Berritik Plaza Zaharrerainoko tartean, Soraluzeko gaiteroek girotuta. Iluntzean, berriz, 19:00etatik 20:30ak arte berriro soltatuko dituzte zezenak eta Eibarko Ustekabe txarangak girotuko du saioa.

Mugertzak adierazi du "edozeinendako" modukoak direla bi saioak. "Ibilita ikasten da. Betiko gazteak irtengo dira, berriak ere bai, errekortatzen ibiltzen diren beste batzuk... denak saltsa berean ibiliko dira". Hori bai, gogora ekarri du 16 urtetik gorakoak bakarrik

ibil daitezkeela zezen handiokin.

## Zezentxoak eta poniak

Dena den, aurten, helduendako ez ezik, umeendako ere izango da zezenekin jolasteko aukera, 17:00etan, zezentxoak eta poniak izango dira Plaza Zaharrean. "Han izan ginen azken urtean zezentxoak programatuta zeuden, baina euria egin zuen bota ahalean. Kalea arriskutsu zegoenez, zezentxorik ez botatzea erabaki zen. Horregatik aurten lehen aldia izango da", esplikatu du Arno ganadutegiko ordezkariak.

Umeendako zezentxoek kasuan, "ahal den eta txikiak", ekarriko dituzte "3,4,5 hilabetetik hasi eta urtebetera artekoak". Mugertzak esplikatu duen moduan, "ahal den eta biziak, baina adar txikiak" dituztenak izango dira plazan.

Zezentxoak ordu erdian edo hiru ordu laurden inguruan ibiliko dira plazan. Ondoren, poniak aterako dituzte mutrikuarrek. "Askotan, ume txikiak gurasoekin ibiltzen dira poniekin eta haiendako ere izan dadin", dio Mugertzak.

Guztia gertu dute, bada, Santa Ana egunerako. Mutrikuarrek soraluzetarrak eta inguruko zezenzaleak bertara daitezen "animatu" nahi dituzte, "ahalik eta ondoen pasatzera"; hori bai, Mugertzak gogora ekarri du "zezena jolasteko" izaten dela "baina ez abusatzeke".

**"AHAL DEN ETA BIZIENAK BAINA ADAR TXIKIENAK" DITUZTEN ZEZENTXOAK ERE IZANGO DIRA**

# Kulturarteko topaketa

"Soraluzeko bizilagunen arteko bizikidetza positiboa" bultzatu nahi da Munduko Arrozak ekimen gastronomikoa baliatuta

Domekan, uztailaren 24an, Munduko Arrozak izenburuarekin, arroza oinarri duten zazpi errezeta dastatzeko aukera izango da Zubi Nagusian.

Soraluzen bizi diren hainbat jatorri kulturaletako bizilagunek prestatuko dituzte, norbere herrialdeko ezaugarriekin, norbere herriko ikur modura ere. Auzoko egitasmoaren eskutik dator ekimena.

Sukaldari prestuak 10:30ean hasiko dira arrozak kozinatzen

eta 13:30erako izango dituzte gertu. Orduantxe jarriko dituzte salgai, iaz bezala.

## Maroko, Pakistan, Ukraina...

Aurten, honako herrialdeetako errezetak prestatuko dituzte: marokoarrak, pakistandarrak, venezuelarrak, brasildarrak, ukrainarrak eta euskaldunak. Iaz ere izan ziren partaide batzuek aurten errepikatu egingo dute; beste batzurendako, berriz, estreinaldia izango da aurtengoa. Errezeta gaziak zein

gozoak izango dira eta arrozarekin egindako edaria ere bai.

## Iaz erabateko arrakasta

Munduko Arrozak ekimenaren antolatzaile eta Auzoko egitasmoaren dinamizatzaile den Arrate Espillak azpimarratu duenez, "Soraluzeko bizilagunen arteko bizikidetza positiboa" bultzatu nahi dute jai horren bitartez, herrian dagoen hizkuntza eta kultura aniztasuna bistaratzeaz eta balioan jartzeaz batera.

Soraluzen, iaz egin zen lehen aldiz Munduko Arrozak ekimen gastronomikoa, partaideen zein herritarren aldetik erantzun ezin hobea eskuratuz. Arrozarekin egindako gutziak salgai jarri eta, ordubetearen, eskaintza guztia agortu egin zen.




**DAMARIS OJEDA**

VENEZUELA

### "Iaz oso harrera ona egin zidaten"

"Iazkoa oso gustuko esperientzia izan nuen. Nire herriaren ordezkari moduan parte hartzea gauza handia da eta jendeak oso harrera ona egin zidan, energia handia sumatu nuen. Iaz arroza kokoarekin egin nuen. Aurten txitxa de arroz egin behar dut, freskagarria da, kanela dauka... edari hotza da, Venezuelako indigenen garaikoa da eta oso-oso gozoa".



**SAID ATRARI**

MAROKKO

### "Arroz horiarekin prestatuko dut"

"Iaz parte hartu nuen Munduko Arrozak ekimenean. Oso gustura ibili nintzen eta, horregatik, aurten ere animatu naiz parte hartzera. Iaz, arroza ganbekin eta arrainarekin prestatu nuen. Oraingo honetan arroz horiarekin prestatuko dut errezeta. Gatzduna izango da, nire herriko (Nador, Marokko) errezeta bat".



**GEYNNE ROSANGELA DOSANTOS**

BRASIL

### "Gurean arroz mota ugari egiten dira"

"Gonbidatu izan naute, baina ezin izan dut orain arte. Iazko giroa asko gustatu zitzaidan. Aurten parte hartuko dut eguna gustura pasatzeko eta nire herrialdeko zerbait egiteko. Gurean arroz mota ugari egiten dira, egunero jaten baita arroza. Bi errezetarekin nabil zalantzan: Gabonetako arroza edo Arroz de carreteiro (kamiolariena).





Eskualdeko hainbat gaztangile Soraluzeko Gazta Azokan.

# Eskualdeko lau gazta aukeran

Santiago egunean, astelehenean, Debabarreneko Gazta Dastatzea izango da, 12:00etan, Zubi Nagusian

Jaietan gastronomiak izango duen presentziaren baitan, Debabarreneko Gazta Dastatzea egingo dute astelehenean, 12:00etan, Zubi Nagusian. Lau gazta mota probatzeko aukera izango da: Soraluzeko Egotzako ahuntz gazta, Elgoibarko Mausitxako ardi gazta, Mallabiko Axelekuko behi gazta eta Mutrikuko Goienetxeko ardi gazta.

Bestalde, gaztaz gain, sagardo kupela ere ekarriko dute Elgoibartik, LizagaSar Sagartokixa izeneko sagardotegitik. Gazta Dastatzearen lagungarri izango da edaria.

## Tiket bidezko salmenta

Gazta Dastatzeari berari dagokionez, tiket bidez egingo dute. Bost euroan salduko da tiketa edo txartela. Txartel

bakoitzarekin gaztandegi bakoitzeko gazta pintxo bana eskuratu ahal izango da eta kupeletik nahi beste sagardo edateko aukera egongo da. Gazta zein sagardoa agortu arte erosi ahal izango dira txartelak, bakoitzak nahi beste.

## "Prezio ona"

Soraluzeko ahuntz gazta eroango duen Egotzako Nagore Martin esan duenez, gazta dastatzea egiteko Soraluzen estreinatuko den formula berri horrek ondo funtzionatu izan duela beste herri batzuetan: "Beste herrietan ondo irten izan da, baina Soraluzen oraindik ez dakigu zelan izango den. Dena den, beste herri batzuetan jendea animatzen da parte hartzera, denetik probatzeko aukera ematen dizu eta prezioa ona da".

## Berritasunak bakailao lehian

Sekula baino emakume gehiagok parte hartuko du bakailao lehiaketan, bost emakumek eman baitute izena. Horrez gain, "betiko" bikoteak izango dira, baina berriak ere bai, gazteren bat barne. Astelehenean, uztailaren 11n itxi zuten lehiaketarako izen-ematea, leku guztiak (16 bikoteendako) bete ziren eta.

Lehiaketari dagokionez, martitzenean izango da eta, ohienez, bakailaoa pil-pil erara prestatu beharko dute lehiakideek. 11:30ean hasiko dira prestatzen eta 13:00etarako bukatu beharko dute. Behin irabazleak erabakita, bakailaoa herritarren artean banatuko dute, tiketak baliatuta.

## Goizero izango da salda eta txorizoa

Jaietako zapatuan hasita, martitzenera bitartean, goizero hamaiketako partituko zaie nahi duten herritar guztiei doan, herriko elkarte gastronomikoen eskutik, Plaza Zaharrean (anbulatorioko arkupean). Salda eta txorizoa izango da "menua". Zapatuan, Batzokiak prestatutakoa banatuko dute; domekan, Mahastia elkarteak prestatutakoa; astelehenean, berriz, Lagun Maiteak elkarteok sukaldariak eramango dute hamaiketako eta azkenik, martitzenean, goizeko zezenen ostean, Arrano elkarteok prestatutako salda eta txorizoa banatuko dute.

# "Jaietan gazteentzat zerbait egoteko egiten dugu lan"



Galtzagorriak.

## GALTZAGORRIAK

Azken 18 urteotan, Galtzagorriak Jai Herrikoei Aldeko Gazte Mugimenduak antolatu ditu jaietako ekitaldietako ugari

Galtzagorriak, Jai Herrikoen Aldeko Gazte Mugimenduak urtero antolatzen du herriko jai-esparru nagusietako bat den Zubi Nagusiko txosnagunea eta bertan egiten diren kontzertuak eta bestelako ekitaldiak. Hilabeteak daramatzate aurtengo jaiak prestatzeko lanak egiten, jaiak iritsi arte buru-belarri segituko dute lanean eta gero, jaietan ere lanean segituko dute, "denetik pixka bat" egin behar izaten baitute.

**Egitarau zabala prestatu duzue aurten ere, egunero dago zerbait txosnagunean. Jendea jabetzen da egiten duzuen lanarekin?**

Egiten den lanarekin akaso bai, baina zenbateko lana den ez. Ikusten ez den lan asko dago atzetik.

**Zenbat lagun zabiltzate lanean? Eta zenbateko lana izaten da?**

Orain, 10 lagun gara. Martxoan hasten gara jaietako zirriborroarekin eta asteak pasa ahala, lana intentsoago bilakatzen da: batzarrak egin, taldeei deitu, txosnetako

txandetarako jendea lotu, generoa eskatu...

**Jaien aurretik lan egiten duzue baina jaietan ere tokatzen zaizue lan egitea, ezta?**

Bai. Jaietan txosnako koordinazio lanak egiten ditugu, edariak-eta zelan dauden kontrolatu, kanpotik datozen taldeko kideei begira harrera-lanak egin, non aparkatu, nora etorri...

Sukaldari-lanak ere egiten ditugu, gazte bazkaria eta musikariendako afariak prestatzeko. Hori bai, txosnan lan egiteko, bestelako kuadriletako lagunak ere etortzen dira txandak egitera. **Zuen zereginen artean, zer da egiteko zailena?**

Gure aurrekontu txikiarekin bost egunetako egitaraua prestatzea, eta, gaueko txanda batzuk lotzea ere ez da erraza izaten.

**Eta politena?**

Gure artean oso giro ona dugula eta jende asko ezagutzen dugula, etortzen diren

## Galtzagorriak mugimenduaren egitaraua

### Barikua:

- 15:00etan Gazteen Bazkaria
- 23:00etan kontzertuak: Polo Opuesto eta No Limits taldeak

### Zapatua

- 23:00etan kontzertuak: Kontralde, Dinamita, Inguma, Cronopios eta M&M.

### Domeka

- 17:00etan Futbolin txapelketa.
- 19:00etan kontzertua: Ainhoa Arraoitajauregi eta Azken Erromantikoak

### Astelehena

- 13:00etan Galtzagorrien txaranga
- 19:00etan Fresa Morangoren kalejira
- 23:00etan kontzertuak: Caribe Mix, Fan&Go eta B de Bendetta.

### Asteartea

- 00:00etan Karaokea eta jolasak.

## "MARTXOAN HASTEN GARA JAIETAKO ZIRRIBORROAREKIN, ETA GERO HANDITZEN DOAZ LANAK"

taldeetakoak... eta herriko jendea pozik ikustea, noski. **Aurtengo egitarautik zer nabarmenduko zenukete?** Herriko taldeen ekitaldiak, noski: Caribe Mix (astelehenean) eta Polo Opuesto (barikuan). **Zenbat urte daramatzazue jaiak antolatzen?**

Galtzagorrien taldeak urte mordoa, 18 edo. Taldera urtero sartzen da jende berria eta irten ere bai. Adibidez, Markel Barrutiak eta Miren Gallastegik 12 urte daramatzate lan hori egiten.

**Urte asko dira. Ikusten duzue erreleborako aukerarik?**

Momentuz, ez. 10 lagun gaude; azken jaietan, orain dela hiru urteko jaietan geunden lagun berberak gara.

**Zuek zer dela-eta eusten diozue ekimenari?**

Gazteontzat gauzak antolatzea beharrezkoa ikusten dugulako eta guk nahi duguna programatzeko aukera ematen digulako.

**Lan handia izan arren?**

Bai, nekatzen gara, noski, baina gustura egiten dugun zerbait da. Egia da, baita ere, batzuetan bakarrik sentitzen garela eta lehen esandako moduan, batzuetan jendea ardurak hartzeko konbentzitzea ez da izaten hain erraza, baina...gu gustura ibiltzen gara eta gure artean oso giro ona dago. Gainera, zer lirateke jaiak txosna barik eta bertako ekitaldi barik?



Herritarrak 2016ko herri-bazkarian.

# Txosna Plaza Zaharrean ere

12:00etan zabaldu eta goizaldeko ordu txikiak arte izango da zabalik eta gauean bokadiloak ere eskainiko dituzte, afalordurako

Zubi Nagusiko txosnaz aparte, aurtien presoen aldekoa ere izango da, Plaza Zaharrean. Egunotan hasi dira muntatzen eta barikuan, uztailaren 22an, 19:00etan zabalduko dute. Hortik aurrera, Santa Ana egunera arte, 12:00etan lanean hasi eta goizaldeko ordu txikiak arte izango da zabalik txosna, (uztailaren 24ean atseden hartuko dute).

Edariez aparte, egunero prestatuko dituzte pikatzekoak eguerditan eta bokadiloak afal-ordurako.

### Herri bazkaria

Horrez aparte, Santa Ana Egunean herri bazkaria antolatuko dute Plaza Zaharreko txosnan bertan egiteko. Nahi duen edozeinek parte hartu dezake ekimenean, bertara joan eta abisu ematea

besterik ez du. Urtero egiten duten ekimena da eta, batez beste, 100 bat lagun elkartzen dira mahaiaren bueltan, arratsaldeko zezenaren ordura bitartean. Aurtien, euririk ez bada behintzat, 16:30ak arte, 17:00etan umeendako zezentxoak baitaude jaietako martitzenean.

### Aletxoa jartzeko gonbidapena

Azken urteotan ez da txosnarik egon Plaza Zaharrean; pandemia tarteko, bestelako ekimenak egin dituzte presoekiko elkartasunari eusteko. Baina aurtien, "presoen aldeko elkartasuna bideratzen jarraitzeko premia" dagoela diote antolatzaileek eta helburu horrekin jarriko dutela txosna. Hain justu, horrexegatik jendea animatu nahi dute "bakoitzak bere aletxoa" jar dezan.



# "Jendea dantzara animatuko dugu"

**MAITANE SALVADOR** KANTU KOLORE TALDEKO ABESLARIA  
Uztailaren 25ean kontzertua eskainiko du Kantu Kolore taldeak, frontoiko karpan, 18:00etan



Maitane Salvador.

Ordubete pasatxoko ikuskizuna eskainiko dute Kantu Kolore taldeko Maitane Salvador eta Mikel Leibar abeslariak, Iñigo Agirrezabala gitarra-joleak, Jon Ander Amigo baxu-joleak, Joxean bateria-joleak eta Eider eta Maialen dantzariek.

Salvador abeslariak azpimarratu duenez, ikusleak dantzan ipintzeko helburuarekin datoz.

## **Ze ikuskizun mota izango da Soraluzekoa?**

Zuzeneko dantzaldi bat, zuzeneko musikarekin. Helburua familia, haur, gazte eta nerabe guztiak dantzan jartzea da. Pandemia egoeratik urrundu eta dantzatzeko giroa edo alaitasuna partekatu nahi ditugu, berriro festa buelta dadin. Koreografiak egingo ditugu eta jendea dantzara animatuko dugu; dena den, gure saioa ikusi nahi duenak ikusi dezala, dantzatu nahi duenak dantzatu dezala eta abestu nahi duenak abestu dezala, azken batean libreak gara.

## **Zuen kantetako batzuk ezagun askoak dira dagoeneko.**

Bai. *Peru krokodiloa* (*Gure animaliak*), *Nire gorputza da...* *Zapiarena* ikasturte amaierako dantza moduan erabili da leku askotan eta indar handia dauka. *Esna Zaitetz* kantaren kasuan, ikuskizunarekin ikusten ari gara jende askok barneratu duela, batez ere eskoletan ipini dutelako. Planetaren aldekoa da; ea mezua helden den eta benetan gure planeta ahalik eta ondoen zaintzen dugun edo, behintzat, gure ingurutik hasi. Zorionez, hainbat eta hainbat umek ezagutzen dituzte gure kantak eta zorionekoak gu halakoekin alaitasuna transmititzen badugu.

## **Alaitasunaz aparte, mezuak ere partekatzen dituzue.**

Kanta guztiek helburu pedagogikoa dute, horretan saiatzen gara, behintzat. 2-12 urtera bitartekoei zuzendutako mezuak dira. Batzuetan mezu bat baino gehiago sartzen ditugu, jazarpenaren kontra,

mundu jasangarriagoaren alde, hilabeteak zelan landu, lateralitatea... Hori guztia musika gaurkotuarekin. Adibidez, euskara bermatu eta sustatzea da helburu nagusietako bat. Orain, etorkin asko etorri diren honetan, badakigu askorentzat baliagarriak izan direla gure kantak, adibidez, hilabeteak zelan landu ikasteko... Zoriondu ere egin gaituzte. Hego Amerikara ere ailegatu dira gure kantak, Euskal Etxeetatik hainbat mezu jaso ditugu. Musika eta euskara lotuz gero, fusio zoragarria lortzen dugu eta horrela jarraituko dugu. Irrikaz gaude hirugarren diskoan pentsatzen.

**"KANTA GUZTIEK MEZU PEDAGOGIKOA DUTE, JAZARPENAREN KONTRA, PLANETAREN ALDE..."**

# Bost lasterketako haur krosa

2020an jaiotako umeetatik hasi eta 2011n jaiotakoetarainokoek parte hartu ahal dute haur lasterketan

Adinaren arabera antolatutako bost lasterketa izango ditu haur krosak. Haur Hezkuntzako 3. mailako umeetatik hasi eta LH6. mailara artekoek parte hartu ahal izango dute. Ohienez, ume txikienena izango da lasterketarik motzena eta nagusiena, berriz, luzeena. Ordu-tegiari begiratuta ere, txikitxoek, 2020an, 2019an eta 2018an jaiotakoak izango dira korritzen lehenak, 11:00etan; gero, 2016an eta 2017an jaiotakoek txanda

izango da; 2014an eta 2015ean jaiotakoena jarraian; 2012an eta 2013an jaiotakoak izango dira ondoren, eta azkenak 2010ean eta 2011n jaiotakoak.

## 24 sari

Sariei dagokienez, korrikalari guztiei emango diete domina lasterketan parte hartzearen. Horrez gain, lehen hiru karreretan, hiruna sari izango dira eta azken bietan, lehen hiru mutilak zein lehen hiru neskek sarituko dituzte.

# Etorri dira jaietarako barrakak

Herenegun, eguaztena ailegatu ziren lehen barrakak, autotxoekak, Erregetxean muntatzeko

Jaietan, umeendako eskaintzaren baitan, barrakak dira preziatuenetako bat. Aurten, pandemia aurreko bisitariak hartzen hasi da Erregetxea, aste honetan etorri baitira autotxoekak. Fondoko kokagunean ipini behar dira eta gainontzeko atrakzioak muntatu ahal izateko lekua laga behar dietelako etortzen zira lehenak. Uztailearen 27ra arte izango dira martxan.

Gainerakoei dagokienez, Sorraluzen izango dira lapiko

handia, txurreroa, ohe elastikoak, tiro pitxoia, zezentxoak eta Txiki Park-a.

## Uztailearen 21ean, euro bat

Barraketako buelta baten prezioa 2 eurokoa (iazko berbera) izango da; 6 bueltaren prezioa, berriz, 10 eurokoa izango da. Ohienez, egun batean prezio merkeagoa izango dute: uztailearen 21ean, euro bat.

## Potxin eta Patxin pailazoaren saioa

Antzerki, mimo, malabare, joku eta elkarrizketaren bitartez, Potxin eta Patxin pailazoek ingurumenari buruz hausnartzera gonbidatuko dituzte umeak Sorraluzen taularatuko duten Ingurumena Zaindu ikuskizunarekin. Mugikorasuna, elikadura, birziklatzea... landuko dituzte, zapatuan, 18:00etan, frontoiko karpan.



Potxin eta Patxin.


## Puzgarriak eta apar-festa

Astlehenean, barrakez gain, puzgarriak ere izango dira Plaza Zaharrean zein Plaza Berrian. 12 urtera arteko umeak ibili ahalko dira puzgarriotan, 11:00etatik 14:00ak arte. Bestalde, martitzenean, 13:00etan apar-festa izango da frontoiko karpan; jantzi proposekin joatea gomendatzen dute.

# Alegrantzia

**ARGAZKIAK ETA TESTUA:** EGOITZ UNAMUNO.

Baliteke antolatzen duten ekitaldi sorta ugariarengatik, lekuaren egokitasunagatik, jan-edanerako aukerarengatik, dantza lotu asko egiteagatik, auzotarren jatortasunagatik, edota arrazoi horiengatik guztiengatik izatea, baina San Andresko jaiek badute zerbait berezia, urtez urte herritarrak erakartzen eta gozarazten dituen. Aurten ere halaxe izan da. Domekan batu zen jenderik gehiena, baina jai egun guztietan ibili da jende mordoxka. Batzuek saria ere eroan dute gainera: harri-jasotzen Mikel Lopetegi *Urrak*, boletan Carlos Martinek eta Nerea Unamunok, zezenetan Fernandok, otarra abadeak eta afariak Marialui Gandiagak. "Ez diamante ez perla ez urre gorririk, alegrantzia baino ez dago hoberik", dio koplak batek eta beharbada horixe da San Andresko jaiek dutena eta urreak baino gehiago balio duena: alegrantzia.







## GUTUNAK

### **Karakatek babesa behar du**

#### **SORALUZEGO KARAKATE BIZIRIK PLATAFORMA**

Balio geologiko, arkeologiko eta etnografiko handikoa da Muskiritzu; baita natura-gune aberatsa ere, eta, nekazal jardueretarako, kirolerako eta aisialdirako estimatua. Inguru paregabea. Erakundeek emandako hainbat babes baditu ere, Karakaten dorre eolikoak (ez dira haize-errota arruntak: hegal bakoitzak Untzagako dorrearen luzera du ipini nahi ditu Green Capital enpresa erraldoiak eta bide administratiboak egiten hasi da (ez dauka eremuak behar besteko babesik, orduan), nahiz eta EAEn oraindik Energia Berriztagarrien Lurralde Planik ez dagoen. Energia Lobbyak dira makro-zentral eolikoak proposatzen ari direnak. Eta orduan zer?

Energia kontsumoa gutxitu behar dugu. Energia sortzeko

eredu herritarrak eta ingurumena kontuan hartuz garatzen diren energia berriztagarrien proiektuak ezagutu behar ditugu. Proiektu erraldoi honekiko erabakimena Jaurlaritzarena da, baina soraluzetarrok eta Udalak, elgoibartarrekin batera, badaukagu zeresana; kontraktotasun soziala gizarteratzeak eta bide administratibotik alegazioak eta bestelako tresnak erabiltzeak proiektua gerarazi dezake (lehenago ere gerarazi genuen eta duela gutxi Euskal Herriko proiektu eoliko batzuk gerarazi dituzte). Pausoz pauso, proiektua geratu arte lanean jarraituko dugu, eta zu ere, irakurle, bidelagun behar zaitugu.

#### **Antton Alberdiri erantzuna**

##### **MARIAN BEGIL**

Ez daukat argi Deba ibaiak Soraluzen dituen presak kendu

behar diren ala ez erabakitzeko aurkeztutako alternatiba bietatik zein den egokiena, baina adierazi nahiko nuke nik ere natura maite dudala eta berau errespetatzen ahalegintzen naizela batzuetan ezartzen diren "arauak" errespetatzeaz batera; beraz, ez litzaidake bururatuko beste iritzi bat duenari "tribu" etiketa publikoa jartzea. Tribuak asko daude. Natura maitatzeaz gain, ez legoke gaizki iritzi ezberdinak gutxietsi beharrean argudio hobeeekin arrazoitzea.

#### **Presak eraisteari buruzko eztabaidaren beste ikuspuntu bat**

##### **NIKANOR IÑURRIETA**

Soraluzen inork eskatu ez duen proiektu baten aurrean gaude eta gure herriarekin loturarik ez duen edo lotura gutxi duen erakundeetatik dator. Lanpostuak sortzen dituen milioi askoko inbertsioa balitz, interesgarria izango litzateke

## KOMIKI TIRA



baina ez da horrela. Horrez gain...

1. Ibaiaren birsorkuntzaren interes zientifikoa argudiatzen da, baina interes hori zalantzan jartzen da Merlin proiektuko txostengileek erantzun mutua eman zutenean bertaratutako batek ibaira kontrolik gabeko isurketak egiten ari direla salatu izanari: “*gu horretarako ez gaude, presak kentzea da gurea*” erantzun zuten.

2. Ziurgabetasunez beteta dago eta fede-arazo bihurtzen da. Ez da emaitzei buruzko inolako simulaziorik erakutsi; hala ere, intuitiboki aurreratu daiteke gure hiri-paisaiaren hain adierazgarria den egungo ur-lamina galduko litzatekeela.

3. Ibaia, hiri-ingurunean, uraren fluxu natural hutsa baino askoz gehiago da;

historia, kultura, paisaia eta emozioak ere badira.

4. Unibertsitateak eta adituek bermatuta etortzea, printzipioz, ondo dago, goian adierazitakoa gainditzen bada. Hala ere, ez da erabateko bermea.

Laburbilduz, ibaiaren birsorkuntza ez da ez erreala ez eraginkorra, proiektuaren ondorioak zalantza zuzkoak dira eta ur-lamina galtzeko arriskua zurrta da, ibaia ez da bere unibertso osoan aintzat hartzen, eta abal zientifikoak ez du beti dena justifikatzen.

Dauden itzalak eta sortu den eztabaida ikusita, herritarron artean erreferendum bat egitea proposatu nahiko nuke.

**GUTUNAK:** Karaktereak, gehienez: 1.000 (espazioak barne).

Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena. Gutuna helarazteko bideak: [aldizkaria@pilpilean.eus](mailto:aldizkaria@pilpilean.eus)

## PUNTUA



ALBERTO IÑURRIETA

## Entzuteari lehenetsuna eman

**B**elariak bi ditugu eta ahoa bat bakarra, baina berba egiteari balio handiagoa ematen diogu entzuteari baino. Entzutea zeozer pasiboa moduan ulertzen dugu eta normalean aldamenekoa entzuteko prest gaude gero geurea esan ahal izango dugulako eta sarritan entzun beharrean geurea konfiguratzeko aritzen gara, baina ez dago dohain handiagorik ondo entzuten jakitea baino. Entzuketan on batek baimena ematen dio hitz egiten duenari bere pentsamenduak, sentimenduak eta emozioak adierazteko.

Ez dugu elkar ondo entzuteko ohiturarik. Gure arteko elkarrizketak bestea konbentzitzera bideratuta doaz, elkarrengandik ikastea baino, bestea gainditzea dute helburu. Gure arteko arazoak ondo entzutearen bitartez gainditu ditzakegu.

Baina zertan datza ondo entzute hori? Norberaren gauzak alde batera utzi eta bestearengan ipintzean datza arretoa osoa eta agian hori da kostatzen zaiguna, gure barruan isiltasuna lortzea. Egarririk egoten gara gure iritzia baliarazteko eta horrek ez digu uzten bat ez datorren hori entzuten.

Entzuteak norberaren iritzia aldatzeko prest egotea eskatzen digu eta hori kosta egiten zaigu, baina entzuteak gehiago aberasten gaitu gure iritziarekin gelditzea baino.





# Jaiak lan egingo dutenen begietatik

Ate joka dira Santiago-Santa Ana jaiak eta egunotan, herritar askok buru-belarri dihardu haiek prestatzen. Aldez aurretik egin beharreko lanak dira batzuk eta jaietan egin beharko direnak beste asko. Guztiak ere sarri ezkutuan gelditzen diren lanak dira, baina horiek barik ez legoke jairik.

Testua eta argazkiak: **Ubane  
Madera Zangitu**

**J**aiak herritarrendako eta bisitariendako gozagarri izan daitezten, lagun askok gogotik lan egin behar izaten du. Gehienak aspalditik ari dira jaien prestaketa lanetan murgilduta eta horietako batzuek azken aste hauetan, ia pentsamendu bakarra dute buruan. Eta laster, festak tokatzen direnean, guztia emanda ibiliko dira.

Gremio askotako beharginak izaten dira jaien oinarriak diren egile eta zaintzaile: ekitaldien antolatzaileak, tabernariak, artistak, muntatzaileak, txosnetakoak, teknikariak, garbitzaileak...

Batzenendako gau-pasa eguna izaten da gogorrena. Beste askori zezen ikuskizunek eta jaietako zapatuak ematen diete lanik gehien. Baina era berean, bada jaietako begira Aste Santuaren ostean lanean hasi eta jaietan 16 orduko lan-jardunak bete arren, dena ondo irteten denean izugarrizko satisfazioa jasotzen duenik ere. Bakoitzak bere arantza edo arrosa izaten du jaien jardunean.

## **Tabernariak, garbitzaileak...**

Ondorengo erreportajearen jaien atzeko lanetan diharduten horiek bizipen eta testigantza batzuk jaso dira, hainbat jardunetako langileen ahotik: tabernariak, udaltzainburua, Udaleko Sustapen teknikaria, brigadako langilea eta kale-garbitzaileak.

Besteak beste, kontatu dituzte eurendako zein diren lanerako egunik gogorrenak, zer izaten diren egitekorik zailenak, zer duten gustukoak eta beste hainbat kontu.

## "Plazentziako gazteak, Otik 100era, 150ekoak dira"

Apirilean hasi zen Mireia Gabilondo jaiei begira Boliarako materiala gordetzen, aurtengo egoera ezohikoa aintzat hartuta. "Urte normal baten, ekaina inguruan" hasi ohi da.

Bistakoa da jaietan taberna-lana gogorra dela. Bolian 7 langile ibiliko dira. Goizean 12:00etatik 22:00ak arte eta gauean 22:00etatik 07:00ak arte, edariak "atera eta atera eta musika kontrolatu. Musika ia edariak bezain inportantea da. Orain spotify dugu, lehen udako kantuak hasteaz bat (apirila-maiatza) hasten ginen jaietarako musika prestatzen; sakratua da, ez zaio inori lagatzen", dio Gabilondok.



Mireia Gabilondo..

### Taberna gutxiago

Gainera, tabernako arduradunei lan handiagoa egitea tokatzen zaie: "Koinata eta biok 07:00ak aldera etortzen gara garbitzera. Putzua egoten da kanpoan eta

barra barruan". Lan "atsegin" horren ondoren, Gabilondok barrako eguneko txanda betetzen du beste langile batekin eta senarraren laguntzarekin. Senarra, berriz, gaueko txandakoei laguntzen ere ibiltzen da.

Eurengatik balitza, jaiak "salto" egingo lituzkete, zapatua, bereziki. "Gaitzena da, kanpoko jendearekin lan egiten duzulako. Azpimarratuko nuke mila aldiz Plazentziako gazteak, Otik 100era, 150ekoak direla; erraza da eurekin lan egitea, ez da gauza bera kanpokoekin. Aurten, gainera, Edurtza itxita dago, Gilarekin ez dakigu zer gertatuko den. Etor daitekeenarekin benetan arduratuta gaude".

## "Dena ondo irteten bada satisfakzio handia da; zailena asmatzea da"

Txoko tabernan jaiak "beti" dituzte buruan; baina praktikan, "orain dela hiru bat aste hasi zen Luki eskariak prestatzen eta joan den astean iritsi ziren lehenak", dio Txaro Uzinek.

Hark azpimarratu du "buruko-min handia" dela jaiak prestatzea: biltegia egokitu, materiala sartu, guztiak ondo funtzionatzen duela ziurtatu, edariak hotzak egongo direla... "Janariarekin berdin. Jaietan eguerdian sarrerakoak, oilaskoa eta saiheskia egiten ditugu, errazago izateko jende guztiari eman ahal izatea. Hala ere, pentsatu egin behar da zenbat genero eskatu".



Txaro Uzin.

### Aurten, kezka berezia

Langileei dagokienez, lan-talde osoak (bederatzi lagun) egingo du lan eta orduka beste pertsona baten errefortzua izango dute. Lanorduak, berriz... "Denok dakigu lan

egin behar dela eta 10-12 ordu inork ez dizkizu kentzen. Dena den, langileekin oso gustura nago, oso jarrera ona dute. Hori bai, aurten, zalantza handia dugu, berez, ez gara gaueko martxa izaten duen taberna bat, afal osteko dantza-saioaren ondoren bukatzen da normalean, baina aurten, Edurtza itxita, Gila itxita...ez dakigu zer izango den. Buruko-min handia da".

Zailenari buruz galdetuta, berriz, "asmatzea" dela dio. "Jaien aurretik lan handia dago, jendeak ikusten ez duena. Baina dena ondo irteten bada, giro ona egoten bada... satisfazio handia da. Baina hori da zailena, asmatzea".

## Garbitzaileek diote, "beti" izaten dutela gertakariren bat

28-29 urte daramatza Jose Antonio Bouzas garbitzaileak herriko jaietan garbiketa-lanak egiten. Urte osoan garbiketa-lanak egiten ibiltzen diren ohiko bi langileez gain, beste hiru ekartzen dituzte jaietarako eta, egun horietan, bost lagun ibiltzen dira egunero zeregin horretan. Jose Martin Lopez de Larrinzar lankidearekin batera, bi garbitzaileek kontatu dute zein nekeza den jaietan lan egitea. "Batzuetan desatsegina da. Ez lanarengatik, jendearengatik baizik. Lana badakizu zer den, baina jendea batzuetan pasatu egiten da. Beti izaten dugu gertakariren bat. Urteren baten botilak bota izan dizkigute, baita



Lopez eta Bouzas.

edalonziak ere, guri eta makinei. Behin salaketa eta guzti jarri genuen".

### **Erdigunea zikinena**

Lanari buruz galdetuta, berriz, kontatu dute jaietan erdigunea

izaten dela zikinaren egoten dena, batik bat, kontzertua dagoenean. "Rock kontzertua, azken urteotan DJenak...". Egunik txarrena, berriz, gaupasa eguna da, "goizean zezena izaten denean". Jaietan aurkitu izan dituzten "altxorrei" buruz, berriz, diote denetik egoten dela kalean zein zakarrontzietan: "Denetik aurki dezakezu, jendea kalean bere zereginak egiten, kuleroak, mugikorrak, diru-zorroak... horiek Udaltzaingora eramaten ditugu. Horrez gain, noiz edo noiz 20 euro aurkitu izan dugu, baina gutxitan. Zakarrontzietan, berriz, egunerokoan denetik aurkitzen dugu, bada pentsa jaietan".

## Brigadakoendako Santa Ana eguna da lanerako gogorrena

Udal brigadako langileak aspaldi dabilta "martxan" jaiekin lotuta. Plaza Zaharreko eszenarioa, adibidez, aste honetan muntatuko dute eta baita zubiko txosnetakoa ere. Aldi berean, San Andresko jaietakoak desmuntatzen ibili dira aste honetan eta, joan den astean, haiek muntatzen. Bata eta bestea dela, herrenka harrapatu dugu Ander Izagirre, gerriko minak eraginda, oporrak iritsi bitartean izaten duten lan pilaketa horrengatik. Izagirrek jaietako hirugarren lan-urtea izango du (pandemiaren bi urteak kenduta). Dio "pixka bat gogorra" dela egun horietan lan egitea, "denek" dutelako jai eta



Ander Izagirre udal langilea.

norberak ez, "baina bueno, ondo", gaineratu du.

### **Santa Ana eguna txarrena**

Jaietan egin beharreko zereginei buruz galdetuta, berriz, dio egitarauko ekitaldien

araberakoa izaten dela udal brigadako lanaren zailtasuna. "Santa Ana eguna da txarrena. Goizean goiz zezena dago, saldaren eta txorizoaren banaketa gero, ondoren, bakailao lehiaketa dator... gauza horietarako guztietarako muntatze eta desmuntatze lanak egin behar izaten ditugu. Gero, horiek bukatzean, pare bat ordu ditugu jateko eta gero berriz dator zezena. Egun horretan, 06:00etan-edo hasten gara lanean, iluntze-gauera arte. Gainera, zezena dagoenean egin beharreko lana gogorra da. Ondo itxi behar da dena... pixka bat konprometitua da, arriskua duelako".



## "Ardura handia da jaiak prestatzea, baina gustura egiten dut"

Soraluzeko Udaleko Sustapen teknikaria Aste Santu ondoren hasten da jaiak begira lanean. "Kontratazioak egiten Aste Santu ostean, eta ja serio ekaina-uztailean". 20 bat urte daramatza lan hori egiten Mikel Leundak. "Ardura handia" da jaiak prestatzea. Gainera, jaietan ere lanean dihardu. "Gogorra da, baina gustura egiten dut. Egunean 16 bat ordu egiten ditut lan. Ordu eta egun asko dira jarraian eta nekea igartzen da". Dio, sikiera, jendeak esaten diola apreziatzen dutela egiten duen lana.

### Herri ekimenekoak

Jaietatik gustukoena "goizean goizeko" giroa da. "Parrandan



Mikel Leunda udal teknikaria.

ibili direnak erretiratzeko direnean, garbitzaileek herria garbitzen dutenean eta eguna hasteko prestaketa lanekin hasten naizenean; beti gustatu izan zait salda eta txorizo banaketa arteko tarte hori".

Jaien garapenari buruz galdetuta, dio aldaketa nabarmena dela ekintza batzuk desagertzen joan direla: "Batez ere ibilbide luzekoak: txirridulari lasterketa, helduen danborrada, haurren danborrada, Erandioko bandaren kontzertua, San Rokerako prozesioa...". Aurten, herritarrek antolatzen zuten musika jaialdia faltan botako duela esan du, ikuskizun ederra izaten zelako. "Eskerrak txistulariek, gaiteroek eta txarangak beren ekitalditxoekin jarraitzen duten". Azpimarratu du ere Galtzagorriak Jai Batzordearen eta Gune Musik Colective elkartearen lana, "jai egitarauari egiten dioten ekarpenagatik".

## "Gaupasa eguna da txarrena, goizean zezena, kalean jende pilo..."

Gotzon Odriozola udaltzainburuarendako azkeneko jaiak dira datozen hauek. Dena den, badu eskarmentua jai kontutan. 32 urtean tokatu zaio jaietan lan egitea. Udaltzainburuak, oro har, dio "zaila, desatsegina, gogorra..." dela sasoi horretan lan egitea, "denetik" gertatzen baita eta denetik izaten baitute: "Jendea mozkortuta, arazo piloak zirkulazioan, jendea bide erdian kendu ezinda, borrokak, bronkak... denetik. Ez dira lan egiteko egun onak izaten".

### Gaupasa eguna

Jaietako egunik txarrena aukeratzekotan, berriz, Soraluzeko



Gotzon Odriozola.

udaltzainburuarendako "denak dira antzerakoak", baina guztien artean, Santa Ana eguna aukeratuko luke okerren moduan: "Gaupasa eguna da, goizean zezena egoten da eta kalean jende mordoak elkartzen

da; askotan ezinezkoa izaten da ondo lan egitea egoera horretan". Bizi izan dituen anekdoten artean ere, zezenarekin lotutako du gogoan, "zezenak ihes egin zuenean".

Odriozolak esplikatu duenez, jaiak begira, udaltzainen lantaldea indartu egiten dute "Azken urteotan errefortzua eskatu izan dugu eta udaltzain bat gehiago izan dugu. Horrez gain, Ertzaintzarekin ere koordinatzen gara. Bestalde, Pesakoekin ere berba egiten dugu gaueko autobusak-eta ipintzeko...denetik egitea tokatzen da". kontatu du laster udaltzainburu izateari lagako dion Gotzon Odriozolak.

# PUBLIZITATEA

		<b>AERA</b> nabardutza nabardutza			<b>Txapa</b> daramaten denekin euskaraz
<b>IGURI</b> BATERIN, LEKIN EDEKORAZ ETA OGIAN EUSKARAZ			<i>Dendetan eta cabernetak lehen hitzak euskaraz</i>		
	<b>Takeman</b> bezero hitzak lehen aldez euskaraz			<b>Senarrarekin</b> euskaraz gero eta gehiegotan	
		<b>Kinatuarekin</b> beti euskaraz			<b>NEKE</b> arrebarekin hika haslea
<b>ZENBAT</b> <b>SORPRESA!</b>			<i>Elkarrieketa elbichun geniara</i>		
	<b>Emaitza "nahi badaizu nirekin euskaraz" igaila, askarekin orain hurrenara euskaraz</b>			<i>Lankide baterin nik euskaraz berak endaraz</i>	

## EUSKARALDIA

HITZEZ EKITEKO GARAIA

Azaroaren 18tik abenduaren 2ra

### SORALUZE

**Eman zure testigantza ondorengo helbidean:**  
labur.eus/EuskaraldikoTestigantzak

**Hortz klinika** Erreal 1 Tel.: 943 75 16 13

**Javier Alonso**  
Mediku Estomatologoa  
K.Z. 48.000.501

**Katia Gustinio**  
Odontologoa  
K.Z. 48.061.541

**27 urteko esperientzia**  
odontologia, ginetika,  
odontopediatria, ortodontia,  
inglantzak, estetika...  
Zerbitzu radiologiko onakara (DCE)  
ekianerria, orto eta tele.



**KLB6**

Kalebarren 6  
943 07 74 28  
Mutter-eta-neken  
moduluetan

**BSB** **Papa Joma** **SOLID** **VERO MODA** **ESKICER** **new balance**



**FOGASLER**  
ITURGINTZA

943 75 16 46 (Soraluze) - 943 71 82 49 (Oñati)  
fogasleriturgintza@gmail.com



*Jatorria plazarra, bertatik bertara*

**Batzoki**

eguzki energia  
aschuzatzen  
kama eta rasoak

eguzkiak eta  
hurbilgaitzak  
enkaratu berriak

benita eta  
lagun arako  
hustakak

Errealak 943 75 20 35



**ELIZPE**  
HORTZ KLINIKA

Zure gureko hortz klinika,  
puntu puntako teknologian lan  
egiten dugu. Call-Cam sistema  
bertatik bertara erabiltzen dugu.

Elizburu, 3 behea  
SORALUZE  
Tel: 943 75 25 67  
e-mail: elizpe@lign.com

Ordutegia:  
Astelenerdik ostiralera  
10:00 - 11:00 eta 16:00 - 20:00



**IZXGUITRRE**  
Igeltzeritza

Erakin berriak • Kalitatezko emaitza  
Erreforma • Era guztietako igeltzeritza

50 urteko esperientzia • 610 638 913 - 640 867 299




Bidelagun euskaltzetasunean








Euskal Herriko txapeldun Hodei Ezpeleta enborrak mozten, Bergaran. BIHURRI

# Herri-kirol saio betea

Uztailaren 24an, domeka, Plaza Berrian herri-kirolen erakustaldia eta elkarren arteko lehia egingo dute aizkolariak eta harri-jasotzaileak; 13:00etan hasiko da saioa eta ordu bete pasatxokoa izango da

Goi mailako herri-kirol erakustaldia prestatu du Soraluzeko jaietarako Ernesto Ezpeleta *Bihurrik*. Aizkolariak eta harri-jasotzaileak izango ditu protagonista. Aizkoran jardungo dute Euskal Herriko txapeldun gazteena eta Urrezko Aizkoran eta Eusko Label ligan txapeldun den Hodei Ezpeletak, Alex Txikon mendizale ezagunak, Goizeder Beltzak eta Ernesto Ezpeleta *Bihurrik* berak.

Harriak jasotzen, berriz, Alex Zinkunegi eta Naiara Zumeta ibiliko dira. Gizonak eta neskek, biak izango dira Soraluzen. "Neskek sartu egin behar dira saioan, gainera maila ematen

dute eta neskekin oso gustura gaude gu. Normalduta dago. Guretzat beti normala izan da, baina are eta normalago ikusten dugu orain", diote antolatzaileak.

## Erakustaldiak eta lehia

Plaza Berrian da hitzordua, 13:00etan. Lehenengo, norbere erakustaldiak egingo dituzte. Aizkorarekin esku batekin, zutik, abiadan, aitzurrarekin eta kolpeka jardungo dute. Harri-jasotzaileak, berriz, hainbat pisu eta formatako harriak altxatuko dituzte.

Erakustaldien ondoren, bi hirukote elkarren kontra lehiatuko dira eta ikustaldia

borobiltzeko, motozerrarekin irudi bat egingo dute.

## Oso egoera txarra

Antolatzaileek esandakoaren arabera, benetan gogotsu daude Soraluzeko saiorako, batetik, aspaldi ez direlako etorri:

"Badira urte batzuk azkenengo aldiz horra joan ginela eta asko poztu gara ikusi dugunean herri-kirola zelan sartu den jaietan. Oso garrantzitsua da euskal kulturaren alde eta euskal kirolaren alde lan egitea.

Gainera, oso egoera txarra bizi izan dugu azken urteetan. Pandemia osoan ez dugu apenas izan erakustaldirik, %90-%95 geldu egon gara; aldiz, gastuak izaten segitu dugu, entrenatzen jarraitu dugu eta enborrekin-eta, gastuak izaten dira".

## Plaza xarmagarria

Bestetik, eurendako Soraluze plaza berezia delako. "Plazari dagokionez, oso plaza berezia da Plaza Berria; oso txikia da eta publikoak beti-beti erantzuten du oso ondo, jendea oso ganean egoten da eta, gu behintzat, oso gustura egoten gara hor. Herriari dagokionez, berriz, Soraluzen etxeokak garela esan daiteke. Urtetan joan gara horra, lagun piloak dauzkagu, Soraluze guretzat plaza xarmagarria da. Aizkoran hasi ginenetik, orain dela 35 bat urte, beti-beti izan gara Soraluzen, plaza handia da hura".

**EZPELETA EUSKAL HERRIKO TXAPELDUNA ETA ALEX TXIKON ARIKO DIRA, BESTEREN ARTEAN**



# Herriko taldeko pilotarien partidak

Astelehenean, Santiago egunez, Pilota Elkarteko emakumezko gazteen zein gizonzkoen arteko pilota partidak jokatuko dituzte

Bi urteko etenaldiaren ostean, aurten, pilota jaialdia egingo da jaietan, Soruluzeko Pilota Elkartearen eskutik. 19:30ean hasiko da jaialdia eta binakako bi partida jokatuko dituzte Araneko frontoian.

## Lehenengo emakumezkoak

Soruluzeko Pilota Elkarteko Aitor Atxotegi pilotari eta arduradunak esplikatu duenez, lehenengo, pilota elkarteko emakumezko gazteek jokatuko dute. Soruluzeko taldean hiru neska ari dira pilota eskolan, alebin eta infantil mailakoak; "Zumarraga, Zaldibar, Eibarko... jendearekin lehiatzen dira eta ikusten da maila nahiko ona dutela", esan du Atxotegik. Besteak beste, horrexegatik antolatu dute nesken arteko partida: "Parekidetasuna



Balerdi Munduko txapeliduna.

bultzatzeko, pilota eskolan maila oneko hiru neskei ikusgarritasuna emateko. Jakin dezaten Plaentxian neskek ere egiten dutela pilotan. Binakakoa partida izango da, Oihane Rodriguezek eta Laida Sanchezek osatutako bikoteak

Ainhitze Aristondok (Soruluzeko taldean jokatzen duen elgoibartarra) eta Maddi Gabilondo bergararrak osatutako bikotearen kontra.

## Ostean, gizonzkoak, tartean, profesional ohi bat

Emakumezkoen ostean, nagusien mailako gizonzkoak aterako dira frontoira binakako partidua jokatuzera. Bikoteetako bat Antzuolako Manex Balerdi Munduko txapelidunak eta Aitor Atxotegik (Debarroko aurtengo txapeliduna eta Soruluzeko taldeko arduraduna, besteak beste) osatuko dute eta bestea, Antzuolako Aitor Mendizabal pilotari profesional ohiak eta Arrasateko Ibai Bolinaga Zaramagako txapelidun izendatu berriak. Lau pilotariok gaur egun Soruluzeko Pilota Elkartean jokatzen dute.

Aitor Atxotegik herritarrak animatu nahi ditu partidak ikustera joan daitezen. "Ea jendea animatzen den etortzera. Bi urtean ez da egin pilota jaialdirik, beraz... Ea orduarekin asmatu dugun, hori ere ez da batere erraza izaten-eta".

## Futbito txapelketako bi finalak bariku iluntzean jokatuko dituzte

Urtero moduan, futbito txapelketako finala jokatuko dute jaien lehen egunean, barikuan. Bi final jokatuko dituzte: Kopakoa eta Ligakoa.

### Kopako finala lehenik

Kopako finala izango da lehenengo jokatuko dutena, kanoikadaren aurretik, 18:45ean. Hain zuzen, gaur, barikua, jakingo da zein bi

taldek jokatuko duten. Izan ere, Kopako finalerdiak gaur arratsaldean jokatuko dituzte, lehena 19:00etan, Aribiransak Guenetxetxo taldearen kontra; eta bigarrena, 20:15ean, Xavinetak Drink Team taldearen kontra.

### Ligako finala gero

Kopakoaren ostean jokatuko dute Ligako finala, Jubiletak eta

Salabardo taldeek, jaietako hasiera emango dien kanoikada jaurti eta gero, 20:30ean.

### 10 talde txapelketan

Aurten, 10 taldek parte hartu dute Futbito Txapelketan eta Araneko frontoian jokatuko dituzte partidak aurreko urteetan ez bezala. Izan ere, azken urteotan, futbitoaren partez Futbol 7-ko txapelketa antolatu izan da eta partiduak Ezoziko futbol zelaian jokatuko izan dituzte.



Caribe Mix ikuskizuneko hainbat musikari.

# Caribe Mix txosnagunean

"Demasa izango da. Jendeak dantza egingo du seguru!". Horrelaxe iragarri du Mikel Hernandezek Caribe Mix, uztailaren 25erako zubiko txosnagunerako prestatzen dabilzan ikuskizuna.

"Demasa izango da. Jendeak dantza egingo du seguru!". Hala iragarri du Mikel Hernandezek Caribe Mix, uztailaren 25erako zubiko txosnagunerako prestatzen dabilzan saioa.

Taula gainean izango dira bederatzi soraluzetar: Mikel Hernandez (1989) abeslari lanetan; Xabier Bengoa (1995) tronpeta-jole modura; Andoni Ariznabarreta (1999) tronboi-jole lanak egiten; Ines Laskurain (1989) teklatuan; Juan Fernandez (1990) baterian; Aritz Arizaga (1990) tronpeta-jole; Ander Gomez (1995) gitarra-jole modura; Jondar Plata (1998) baxu-jole lanetan eta Aimar Bengoa (1991) tronboi-jole lanetan. Korista

lanak egiten hiru eibartar ibiliko dira: David Suarez De La Peña (1987); Ikuska Lizarralde Baskaran (1990) eta Idurre Iriondo Ibaibarriaga (1989).

## Bertsio Gauean arrakasta

2000. urte bueltako udako abestiekin osatuko dute Caribe Mix, "*La Barbacoa, Mayonesa, Salomé...*". Aukeraketa egin dute taldekideen "jotzeko kapazitatearen arabera", nahiz eta, hori bai, "kantu politenetatik" hasi.

Ikuskizuna orain dela hiru urte Gaztetxean egindako Bertsio Gauaren eta ondorengo pintxo-pote baten ondorioa da: "Bertsio Gauean egin genuen Caribe Mix, sei bat kantu-edo.

Demaseko arrakasta izan zen. Gero, pintxo-pote batean komentatu genuen ondo egongo litzatekeela berriro ere Caribe Mix egitea, baina kontzertu oso bat, ordubate ingurukoa lantzea. Orain dela bi urteko jaietarako zegoen pentsatuta, baina pandemia etorri zenean alde batera laga genuen", esplikatu dute.

## Entseatzeko leku falta herrian

Jai "normalak" bueltan ikusita, orain dela hiru urteko Bertsio Gau hartan musikari izan zirenetako hiruk, Hernandezek, Ariznabarretak eta Aimar Bengoak, "galdezka-galdezka", kide berriak erakarri eta Caribe Mix taulartzeko bederatzi musikari elkartu dira. Hilabete inguru daramate entseatzeko: "Nahikoa lanekin. Asko gara eta zaila da denok elkartzea. Bestalde, zailtasun handiak izan ditugu entseatzeko hasteko, ez geneukalako lokalik; leku bila ibili gara musika eskolako lokalean sartu arte. Eskerrak musika eskolari. Bertako junta esfortzu handia egiten ari da guri hau prest lagatzeko. Azpimarratu beharra dago herrian gauza politikak egin ahal izateko ez dagoela entseatzeko lekurik, musika eskolako lokala ez bada".

Zailtasunak zailtasun, Caribe Mix laban da, emaitza, jaietan dastatuko da. "Guk intentzio ona dugu, gero zelan irtengo den... Baina, poliki-poliki badoa (barre) eta demasekoa izango da!", diote.

**"DUELA BI URTEKO JAIETARAKO ZEN, BAINA PANDEMIA ETORRI ZENEAN ALDE BATERA LAGA GENUEN"**

# Erraldoiak eta buruhandiak

Iruñetik etorrira, Buztintxuri konpartsako erraldoiak eta buruhandiak izango dira zapatuan, 13:00etan hasita

Iruñeako Buztintxuri konpartsak ezagunak ditu Soraluzeke kaleak, azken jaietan bertan izan ziren-eta.

Aurten ere jaso dute bertaratzeko gonbidapena eta halaxe egingo dute jaietako zapatuan.

Konpartsak erraldoiak zein buruhandiak ekarriko ditu. Erraldioen kasuan, Mikel, Antonio, Ana eta Feli izeneko pertsonaiak ekarriko dituzte eta buruhandiak, berriz, Sorgina, Fiesterro, Txatxo de Lantz eta Gaitero izango dira jaietan. Azken biak berriak dira, baina gainerako guztiak iaz Soraluzean izandakoak dira.

## 43-48 kilokoak

13:00etan hasiko dute saioa, erdigunean. Barañaingo gaiteroen laguntzarekin,



Erraldoiak, iaz.

erraldoiek dantza saioak egingo dituzte herriko hainbat puntutan. Iaz ikusgarri jardun zuten, batik bat, jakinda erraldoi bakoitzak 43-48 kilo inguru dituela. Erraldioen dantza saioekin batera, buruhandiak, zelan ez, umeei eta gazteei ipurdikoak ematen ahaleginduko dira.

## Txistulariak, gaiteroak, Plaentxia Kantuan eta dantzaldi herrikoia

Herritarrak protagonista izango dituzten ikuskizunen artean, Soraluzeke txistulariek bi saio eskainiko dituzte, biak ala biak Santiago egunean: 10:00etan goiz eresia eskainiko dute eta 12:00etan, kalejira. Santa Ana egunean, gaiteroak aterako dira: 07:00etan, zezenaren aurretik, diana joko dute eta ostean, zezena girotuko dute.

### Kantua eta dantza

Kanturako eta dantzarako hitzorduak ere izango dira. Uztailaren 23an, Plaentxia Kantuan taldeak kantujira egingo du eta

Santa Egunean, eguerdiko 12:00etan, dantza saio irekia egingo dute kaleko hainbat gunetan zehar, Urrats dantza taldeak antolatuta.

## Goi mailako bertso saioa, frontoian

Azken bi urteotan egin den moduan, aurten ere goi mailako bertso saioa egingo da jaietan eta lau bertsolarik kantatuko dute: Alaia Martin oiartzuarra, Saioa Alkaiza iruindarrak, Unai Iturriaga durangarrak eta Amets Arzalluz hendaiarrak. Haiei gaiak ematen, berriz, Amasa-Villabonako Amaia Agirre bertsolari eta gai-jartzaileak jardungo du. Aurten, saiorako sarrera debaldekoa izango da eta aforoa mugatu beharrik izango ez denez, herritarren ez dute aurrez txartelik erreserbatu beharrik izango. Saioa, uztailaren 24an, domekan egingo da, arratsaldeko 18:30ean, Frontoian ipiniko den karpan.

## Txarangak eta kalejirak

Jaietako protagonistetako bat musika izaten da, taula gainekoa zein kalekoa. Azken horri begira, hainbat txaranga eta kalejira ibiliko dira aurten kalerik kale. Etxekoei eta gertukoei dagokienez, Galtzagorrien txarangak barikuan eta astelehenean egingo du kalejira eta Eibarko Ustekabe txarangak, berriz, martitzenean.

Horiez aparte, zapatuan Elektrotxaranga arrakastatsuak jarriko du martxa, domekan, Mexico lindo, ¡Sí señor! mariatxiek kalejira egingo dute eta azkenik, Fresa Morango taldeak astelehen iluntzean jardungo du.



# "Zuzenekoan indar handiagoa dugu"

MIKEL OREGI CACHO POLO OPUESTOKO KIDEETAKO BAT

Gaur, barikua, Eibarko Hirurok tabernan; martitzenean, Otxandioko Gaztetxean eta uztailearen 22an, Sorraluzen rap kontzertuak eskainiko ditu Polo Opuestok (M-Rek eta Katxo). Txosnetakora North School kolektibokoak ere etorriko dira.

## Kolektiboko zeintzuk datoz?

Guztiak, ahal badute. Estilo anitzeko kontzertua izango da.

## Kantu berriak ekarriko dituzue?

Bai, 8 abestiz osatutako mixtape-a atera dugu, CD-an, *Barrena*

*Mixtape*. Emekarekin pare bat kolaborazio ere baditu. Kritika soziala, gure bizipenak, sentimenduak... jasotzen dituzten abestiak ditu, batzuk lehenagokoak, Ina Peñalbak remasterizatutakoak. Oraingoz, Spotify-n eta Youtuben dago, baina distribuidora bati eskatu diogu fisikoa ateratzeko. Ez dakigu jaietarako, baina abuzturako espero dugu izatea.

## Kanta mitikorik izango da?

Bai. *Siempre igual* eta *Lo nuestro*, adibidez. Hainbat gertakari berriengatik, horiek entzutean, iruditzen zaigu orain sentimendu gehiago transmititzen dituztela. **laz izan zenuten debuta herrian; aurten berriro...**

## "ESPERO DUGU JENDEA POZIK SENTITZEA EGITEN DUGUN LANAREKIN, HORREK MOTIBATZEN GAITU"



Mikel Oregi Cacho.

Gustura egon ginen iaz. Dena den, aurten desberdina izango da, gaeuz, COVID araudi barik, jendea jaiak lehen ziren moduan izateko irrikaz...

## Kanpoko jendea ere espero duzue?

Eibartik, Bergaratik, Durangotik... etorriko dira.

## Zer esango zenieke entzuleei?

Zuzenekoan Polo Opuestok indar handiagoa duela eta jendearengana ailegatzen dela. Ekainaren 30ean, Kabiezesera (Santurtzi) joan ginen; han ez gintuzten ezagutzen, baina saltoka, kantaka... bukatu zuten.

## Besterik nahi duzu esan?

Gozatzera gatozela eta espero dugula aurrean zein atzean dagoen jendea pozik sentitzea egiten dugunarekin. Gure lana inork ez badu baloratzen, ez gara motibatzen, aldiz, jendeak gustuko duela ikusteak asko laguntzen digu. 6 urte daramatzagu, horregatik ez balitz, ez ginatke erdira ere ailegatuko. Orain serioago ere hartzen dugu, entseatu-eta guzti egiten dugu.

## No Limits bergararrak

Jaien lehen egunean, barikuan, No Limits talde bergararrak ere eskainiko du kontzertua, Polo Opuesto rap bikotearekin batera. 23:00etan hasiko da kontzertua, Zubi Nagusiko txosnagunean. Punk-rock doinuak taularatuko dituzte Bergarako gazteek. 2019an eskaini zuen lehen zuzeneko No Limits taldeak, Bergarako Kartzela Zaharrean.



No Limits Bergaran. GOIENA

## Arraioitajauregi eibartarra

Jaietako domekan, Ainhoa Arroitauregi eibartarrak kontzertua eskainiko du txosnagunean, 19:00etan hasita. Besteak beste, EiTbko Gaztea Cover lehiaketako iazko irabazlea eta aurtengo epaimahaikide izandakoa da eibartar gaztea. Bestalde, Debajo del paraguas musika-talde bilbotarreko abeslaria ere bada.



Mikel Aparicio musika jartzen, iazko saioan.

# Gune Musik, goizez ere bai

Uztailaren 23an egingo dute Open Air Gune Music jaialdia, iaz bezala, kiroldegi gainean. Aurten, gainera, bi eszenatoki izango ditu: bata, kiroldegi gaineko egurrezko tariman eta bestea, pareko skate parkean.

Berritasunez betea dator aurtengo Open Air Gune Musik jaialdia. Batetik, jaialdia egun osokoa izango da; goiz partean, Electro Bermuta egingo dute eta arratsaldean, berriz, festa, 16:30ean hasi eta 03:30ak arte. Bestetik, aurtengo jaialdiak eszenatoki bakarraren partez, bi eszenatoki izango ditu.

## Gune bat "lasaiagoa" eta beste bat "gogorragoa"

Eszenatokitako bat, iaz moduan, kiroldegiko egurrezko lurzoruan egokituko dute. Bestea, berriz, parean, skate parkean. "Skate parkean musika lasaiagoa izango da, Tech House estilokoa eta bestean, berriz, apurtxo bat

gogorragoa, Techno musika", esplikatu du Gune Music kolektiboko Mikel Apariciok.

## 11 artista

Artistei dagokienez, 11 lagunek jardungo dute musika pintxatzen. Soraluzekoak hiru, Gune Music kolektiboko Dinnamickal, I+D eta herrian estreinaldia izango duen Ruda aka Rigidman. "Adur [Odriozola] izan da azkeneko fitxajea. Demaseko potentziala dauka", dio Apariciok. Gainontzeko musikariak etorriko dira Eibartik, Bergaratik, Donostiatik, Nafarroatik, Gasteiztik eta Kantabriatik. Kartel-buruak, berriz, izango dira Ibailo,

Unfaith, Adrian Oblanca eta Ibon Vidal.

## "Mugimendu dezente"

Open Air Gune Music jaialdirako sarrera doan izango da eta antolatzaileek "mugimendu dezente" espero dute. "16 urtetik gorako edozein etor daiteke. Jendea iada hasi da esaten etorriko dela. Mugimendu dezente espero dugu. Udalari eskatu diogu alde batzuk ixtea, ez egoteko interferentziarik. Aurrean eta atzean, berriz, bizilagunak ez dugunez, espero dugu dena ondo eta lasai joatea" esan du Apariciok eta zera gaineratu du Adur Odriozolak ondok: "Animatu etortzera, ez bakarrik arratsaldean, goizetik etorri eta ikusi ambientea, datorrenak ondo pasatuko du".

## Elektro Bermuta

11:30ean hasi eta hiru orduko Elektro Bermuta proposatu du Gune Music-ek uztailaren 23rako. "Muntatuko dugu chill out moduko bat, musika lasaiarekin, jendea goizean etor dadin hona ere poteotxoaa egitera; nahiko genuke kiroldegi gaina jaietako herriko gune bat gehiago bilakatzea, zubiko txosna bezala. Aukera badugu terraza txikitxo bat ere muntatuko dugu jendearendako", esplikatu du Mikel Apariciok.



Tio Teron taldeko dantzariak, hilkutxarekin. TIO TERON

# "Ikusleen eta artisten arteko energia sekulakoa da"

**ARITZ SALAMANCA** TIO TERONEN SEMEAK

2018an Sorraluzen izandako arrakastaren ondoren, jaietako zapatuan 'Festamentua' ikuskizuna eskainiko dute, Plaza Zaharrean

Oraingoan, hileta batean elkartzea egokituko zaie Tio Teronen Semeak taldea osatzen duen 16ko lagunei. Testuinguru horretan, umore, dantza eta doinu ezagunez jositako ikuskizun original bezain berritzailea erakutsiko dute Plaza Zaharrean.

**Zer dela eta aukeratu duzue hileta bat ikuskizunerako?**

Gure lehen ikuskizuna, *Freshcool*, festa bat zen

hasieratik bukaera arte; bigarren honetan beste ikuspegi batetik ikusi nahi genuen lagun kuadrila bera, egoera bitxiago batean. Kuadrila berezia da eta saiaturiko da hileta bezalako egoera ilun edo desegokia irauli eta beste gauza bat bihurtzen. Saiatzen gara publikoarekin batera egoera hori iraultzen eta publikoa bera ere iraultza horren parte bihurtzen da. Umorez beteriko egoerak

izango dira, ez da hileta normala izango. Segituan sortuko dira egoera oso graziosoak eta *gag*-ez betetako hileta bihurtuko da.

**Zuen bigarren lan hori dagoeneko leku askotan erakutsi duzue.**

**Zelako harrera dihardu izaten?**

Oso harrera ona. *Freshcool*-ek bezain ona. Zorte handia ari gara izaten gure bi ikuskizunekin. Pandemia barne, 80 emanalditik gora eman ditugu eta hori kontuan hartuta gure ikuskizunak bakarrik udako hilabeteetan eskaintzen ditugula. Oso pozik gaude *Festamentuarekin*.

**Hilkutxa eta guzti etorriko zarete?**

Bai, baina hildako kutxaz gain, beste zenbait sorpresa izango dira. *Festamentuan* normalean espero ez dituzun gauzak gertatzen dira. Espero dugu publikoari gustatzea. *Freshcool*-en agertzen diren zenbait gauza *Festamentuan* ere azalduko dira baina ezin dut gehiago aurreratu.

**Besterik gaineratu nahi baduzu...**

*Freshcool* ikuskizunetik oso desberdina izan arren oso gustuko izango dute *Festamentua* eta *Freshcool* ezagutzen ez dutenek aukera paregabea dute Tio Teronen Semeak taldea ezagutzeko. Gainera, zuzenekoan asko irabazten dugu. Ikus dezakete telebistan ideia bat hartzeko baina zuzenean ikusleen eta artisten artean sortzen den energia sekulakoa da.

**"NORMALEAN ESPERO EZ DITUZUN GAUZAK GERTATZEN DIRA FESTAMENDUA IKUSKIZUNEAN"**



## ZERBITZUAK

### ZORION AGURRAK



**Laida Sanchez**  
Uztailaren 21ean, 11 urte. Zorionak etxekoan partez!



**Javier Aparicio Prol**  
Uztailaren 22an, 37 urte. Zorionak! Oso ondo pasau eguna.



**Izaro eta Markel Rodriguez Aparicio**  
Uztailaren 23an eta 30ean, 11 eta 7 urte. Zorionak Izaro eta Markel. Muxu handi bat. Maite zaituztegu.

### HILDAKOAK ETA JAIOTAKOAK

#### Hildakoak

Manex Dominguez Etxaniz  
Victor Iriondo Jauregi  
Margarita Maiztegi Aranberri

#### Jaiotakoak

Ez da jaiotakorik egon

### ESKELAK

#### ESKELA



**Margarita Maiztegi Aranberri**



2022ko ekainaren 24an hil zen, 93 urte zituela.

Izar berri bat piztera noia Euskal Herriko zeru gainian.

Etxekoak.

#### II. URTEURRENA

**Arantzasu Amasorrain Linacisoro**



2020ko uztailaren 7an hil zen 71 urte zituela.

Maitasuna egunero ospatzen delako, maite zaitugu.  
Eskerrik asko Arantzasu, eskerrik asko ama.

Sendia.

**Soraluze Motor**  
Mug. 676 556 817 (Asier) Mendiola ind. 15 Soraluze  
Tel. 943 75 21 36

**TXURRUKA JATETXEA**  
- Sukalde tradizionala  
- Asteburuetako menu berezia  
- Kartak  
Tel: 943 75 18 81  
www.txurruka.eus

**Carpinteria MANU Aroztegia**  
Aterak: Bontakak, Potxakak, Sukaldeak, Tartaak.  
Manuel C. Fuentes  
Estazioa 8. barrera - Mug. 636 05 81 25

**Armendi Jatetxea**  
Sukalde tradizionala  
Eguneko menua  
Asteburuetako menu berezia  
Karta  
Burduntzian erretako bildotsa  
Etxeko fritxoak  
Souffléa  
Tel.: 943 75 10 02

**TXURITXU GOZOTEGIA**  
Asteheneretik ostiralera: 08:30-13:00 eta 16:30-20:30  
Larunbata: 08:30-13:00  
Igandek: 08:30-14:30  
Gosariak, oja, premsa, pasorik, borbolik...  
Etxera eramatzeko zerbitzua  
Tel. 943 75 24 43

**Criado Fruitategia Urdaitegia**  
- Enkarguak Whatsapppe  
- Etxerako zerbitzua  
- Iberikoak & delicatessen  
Asteheneretik ostiralera: 09:00-13:00 eta 17:00-20:00  
Larunbata: 09:00-13:00  
629 958 536

ESKELA

## Manex Dominguez Etxaniz

2022ko ekainaren 29an hil zen, 21 urte zituela.



---

Jolas eta algara ugari zurekin, Manex!  
Zure irri bizia betiko gurekin!

---

Kukumixoko zure hezitzaileak.

ESKELA

## Manex Dominguez Etxaniz

2022ko ekainaren 29an hil zen, 21 urte zituela.



---

Zara eta izango zara beti "nuestro niño". Izar uxo baten bezala pasa zara, baina zure distira betirako izango da hilezko.  
Zu maitatzea erreza izan da, zu ahaztea, ezinezkoa.

---

"Los Alberdi, Cortes, Fulgencio, Gómez, Mestre y Nieves".

LAGUNEN MEZUA



Manex, eskalada maite zenuen eta hori erakusten zenien gure seme alabei. Mutil lotsati eta maitakorra. Beti irrifar bat ahoan. Gure eta gure seme alaben bihotzetan geldituko zara betiko.  
Bidaia on.

---

Elgoibarko zure eskaladako ikasleak.



**ESKELAK JARTZEKO: 699 86 87 29**  
edo [eskelak@pilpilean.eus](mailto:eskelak@pilpilean.eus)

Hil diren herritarren eskelak, oroigarriak eta urteurrenak argitaratzen dira aldizkarian eta Plaentxia.eus webgunean.

Tarifak (BEZ barne):

- ▶ Arrunta: 75 / Bazkideek 60
- ▶ Handia: 120 / Bazkideek 96

**Pil-pilean eta Plaentxia.eus: irakurrienak Soraluzen.**



**Belarrak**  
lana eta belarrenda

Elikagai ekologikoak  
Etxerako zerbitzua  
Santa Ana 22  
943 75 30 11

**MENDIZABAL**  
okindegia  
Ogla - Prentsa - Gosariak



Astelehenetik ostiralera:  
08:00 - 13:00  
17:00 - 20:00  
Larunbatak eta igandeak  
08:30 - 13:15

Kalebarran 10  
Tel.: 943 75 13 99



**Kontulan**

Aholkularitza fiskala - Kontabilitatea  
Lan-aholkularitza - Zerbitzu juridikoa  
Ticket bai - Outsourcing - Aseguruak

[www.kontulan.com](http://www.kontulan.com)



**Txoko**

Eguneko menua,  
plater konbinatuak,  
hamburgerak,  
ogibarkoak,  
nabaiak,  
pizak,  
gosiak...

Entzuguak opten dira  
Tel. 943 75 17 89

**MGS**  
Seguros

**Veronica Galarraga**  
Gertukoak eta segurua



Astelehenetik ostiralera:  
10:00 - 13:30 eta 17:00 - 19:30

Santa Ana 13  
☎ 645 744 055



**Almar**  
Españolegia  
Estetika  
Solarizama



Gastoluz 4, Arkaio  
Tel.: 943 75 13 13 - 682 31 34 84

# GOKI

erreformak



## FATXADA BIRGAITZEAK

**S.A.T.E.**

FATXADA AIREZTATUAK  
BIRGAITZE TRADIZIONALA  
BALKOIEN BIRGAITZEA



## ESTALKI ETA TEILATUAK

ERABATEKO BIRGAITZEAK  
TERRAZA ETA ESTALKI LAUAK  
MANTENTZE LANAK  
SEGURTASUN SOKA FINKOAK



## BARNE ERREFORMAK

ETXEBIZITZAK  
LOKAL KOMERTZIALAK  
BULEGO ETA ENPRESAK  
SUKALDE ETA BAINUGELAK



## IRISGARRITASUNA

OZTOPO ARKITEKTONIKOAK KENTZEA  
IGOGAILU INSTALAZIOAK  
0 KOTA



## BULEGO TEKNIKOA

ERAIKINEN IKUSKARITZA TEKNIKOA  
EFIZIENTZIA ENERGETIKOKO ZIURTAGIRIAK  
ERAIKUNTZA PROIEKTUAK

ELGOIBAR  
943 74 42 23

SORALUZE  
943 12 57 41

BERGARA  
943 76 53 42